



Pil-pilean

TURKIDIA

Soraluzeko hilabetekaria
2024ko ekaina · 411 alea

IONE OREGI ETA
JULEN MUGURUZA

"ASKATASUNA
DENON ARDURA
DA"





PIL-PILEAN 411

2024ko ekaina

Azaleko argazkiaren egilea:

Juan Fernandez.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Elkarrizketa Luis Poncela Kale-garbitzailea | IRITZIA |
| 6 | Begira Pilota eskolakoen jaialdia | 3 Neuretik Gotzon Elizburu <i>Faxistak</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 16 Gutunak Adierazpena <i>Soraluzeko Udala</i> |
| 14 | Argazki bidez Sour jaialdia | 16 Komiki tira |
| 18 | Erreportajea Ione Oregi eta Julen Muguruza | 17 Hausnarketa Jolasa |
| 26 | Kirola Soraluze Futbol Taldea | 17 Puntua Enara Agirre <i>Libre, ez ausart</i> |
| 28 | Kultura 'Laia' dantza ikuskizuna | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Faxistak



GOTZON ELIZBURU BERISTAIN

Ez da berria. Eskuin muturrak aspaldian darabilen estrategia da salbatzaile gisa agertzea. Beti ere, zuria bazara, nortasun agirian “bertan” jaiotakoa zarela jartzen badu. Hala funtzionatzen dute Desokupako faxista espainiarrek ere. Langile gizajo bati etxea okupatu dioten beltz edo gorri gaiztoak biolentziaz kanporatzen dituzte. Statu quoaren komunikabideek eta alderdiek okupazioa segurtasun arazo nagusienetakoaren kategoriara altxatzen dute eta, hala, erroko arazoari heldu beharrik gabe, eztabaida desbideratzen dute. Izan ere, eskuin muturra beti izan da eliteen zerbitzaria. Faxisten begirune gabezia hori inoiz ez da boteretsuen kontrakoa, ahulenen kontrakoa baizik.

Etxebizitzaren auzian esate baterako, arazoaren muina kapitalismoak ezartzen dugun merkatuaren legea da, eskubidea dena espekulaziorako merkantzia bilakatzen duena. Erakunde publikoek ez dute etxebizitza bat izateko herritar guztiok dugun eskubide subjektiboa bermatzen. Hau da, etxebizitzaren prezio desorbitatuak dira arazoaren muina. Arazoaren muina da bizitzaren garestitze orokortua. Eta arazoaren muina da, hemen, arazo horiei aurre egin ahal izateko etxebizitza lege ezberdinek ahalbidetzen dituzten neurriak aplikatzeko borondate eza gobernu autonomikoetan agintean dauden alderdien aldetik: alokairuzko etxebizitza parke publikoa biderkatzea eta prezioei topea ezartzea, besteak beste.

Anekdotikoa eman dezake Soraluzen gertatu berri den honek, baina Europar Batasuneko hauteskundeak pasa berri dira eta beldurra ematen du eskuin muturraren indartzeak, baita Euskal Herrian ere (ikus Ipar Euskal Herriko emaitzak). Hauek ez dira inoren eskubideen defendatzaile. Gutxi batzuen pribilegioei eusteko ofentsiban datoz, behekoak beheragokoen kontrako guda batera bultzatuz. Hauekin denok izango gara galtzaile: migranteak, langileak, emakumeak, euskaldunak, LGTBIQ+ pertsonak... Antifaxismoa ez da orain aldarri huts bat. Ezin da izan pose huts bat ere. Indarra hartzen ari dira eta ezin diegu espazio bakar bat ere oparitu. Fronte zabalak, politika ausartak eta botere anbizioa.

**FAXISTEN BEGIRUNE
GABEZIA HORI INOIZ EZ
DA BOTERETSUEN
AURKAKOA, AHULENEN
KONTRAKOA BAIZIK**

“Zikin hutsak gara, konponbidea da isunak jartzea”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN OREGI TXURRUKA

Luis Poncea (Soraluze, 1957) Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko kale-garbitzailea da 2018tik. Azken boladan, Ermuan dihardu lanean, baina aldi baterako langilea da eta herriz herri ibiltzen da garbiketa-lanak egiten, esaten dioten lekuetan.

Zein da eskualdeko herririk zikinena? Zergatik?

Ermua. Jendeak zikinkeria lurrera botatzen duelako eta ia ez delako zakarrik batzen. Dena den, nik esperientzia daukat Elgoibarren, Deban, Ermuan eta Soraluzen. Beste herrietan gutxiago ibili naiz eta ez ditut horrenbeste ezagutzen.

Eta zein da herririk garbiena?

Batzuek diote Mutriku dela, baina ez dut horrenbeste ezagutzen. Niretzat, Deba da gusturen lan egiteko herria. Ibilbidea ona da, udako sasoi gogorra da, baina nik justu orduantxe egin dut lan eta eramangarria da. Antzerako kilometro kopurua (13-15 km.) egiten da bestelako herrietan ere. Ermuan, berriz, 20 km. inguru egiten ditugu, luzeegia delako eta aldapa handiak dituelako.

Soraluze non kokatuko zenuke?

Eskualdeko herrien artean erdialdean, beherantz eginez. Soraluzek beste arazo bat dauka.

Zein?

Hondakin poltsez betetzen diren zaborrontziak dago arazoa. Herri guztietan gertatzen da hori, baina Soraluzen gehiago.

Garbiketa kontuetan aldaketaren bat igarri duzue azken urteotan?

Adibidez, etorkin arabiar gehienek, ohituraz edo erlijioz, ez dute janaririk bota nahi eta edukiontzitik zintzilik lagatzen dituzte poltsak, norbaitek hartuko dituen esperantzaz. Baina nire lana da horiek erretiratu eta botatzea. Bestalde, kanpotik etorritako askok ez dute ulertzen sistema eta sarri konfunditu egiten dira edukiontziz.

Soraluzen 700 txakur pasa daude. Bakoitzak birritan-hirutan txiza eta kaka egingo duela kontuan hartuta...

Txakurren kasuan, okerragoak dira kakak. Askotan ez dugu halakoak jasotzeko beharrezko gauzarik. Karroarekin egun osoan dabiltzanek sepiolita eramaten dute lurra apur bat sikatzeko. Baina beti ez goaz halakoetarako prestatuta. Dena den, Ermuan, adibidez, jaietan lantokiko atean pertsonak horrenbeste txiza egiten digute neu ez naizela ausartzen ezta atea ukitzen ere. Eta, oro har, jaietan lan egitea da gogorrena, batik bat, Mutrikuko Berdel egunean.

Garbiketa sistema bera ondo dago ala aldaketaren bat apropos ikusiko zenukete?

Eratub publikoa balitz guztia, zerbitzua dezente merkeagoa litzateke.

Topatu duzun gauzarik arraroena...

Pertsona bat arroparen edukiontzi barruan, demaseko sustoa hartu nuen. Beste behin, Eibarren Katu Kale taberna ondoan edukiontziak dauden lekuan, bat kendu nuen eta txiza egiten zegoen emakume bat topatu nuen. Beste behin, Urkizutik behera gentozela, pertsona bati bost gatzetxoren artean lapurreta egiten ahalegintzen zebiltzan. Geratu egin ginen, baina kamioitik irteteko keinua egin arte, gazteek ez zuten ihes egiteko ezta zirkinik egin ere.

Lanean ikusten duzunarengatik, zelakoak gara bizilagunak, garbiak/zikinak/normalak...

Nire iritzia da zikin hutsak garela. Ahoa betetzen zaigu zenbat birziklatzen dugun esaten eta nik batzen dudanean ezin dut sinistu ere egin. Gauez hasi nintzenean, Elgoibarren deskargatzen genuen kamioia. Organikoa begiratu nuen lehen aldian, ezin nuen sinistu, koltxoiak, bizikleta bat... denetik zegoen han. Lehen Mankomunitateko bi langile organikoetara botatako poltsa desegokiak erretiratzen ibiltzen ziren. Orain enpresa pribatu batek egiten du hori. Eta utzikeria ere nabarmenduko nuke, udalena, udaltzaingoena edo dena delakoena. Ikusten dute askok lagatzen dituztela altzariak edozein egunetan eta edozein ordutan eta ez diete ezer esaten. Eta hori asteke egun guztietan gertatzen ari da. Nik argi daukat, konponbidea da isunak jartzea.



Txapela kentzekoa

ARGAZKIA: UBANE MADERA **TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

Ekainaren 21ean, ikasturte amaierako pilota jaialdian parte hartu zuten Soraluzeko pilota eskolako dozenaka gaztetzok. Banaka edo bikoteka, pilotari bakoitzak bere mailari zegokion partida jokatu zuen, frontoiko harmailak bete zituzten senide, lagun eta bestelako herritarren txalo artean. A ze poza, gero, amaieran, hogeita bira ailegatu zirenek eta ailegatu ez zirenek, denek, garaikur bana jaso zutenean eskura. Amaiera ederra jaialdi ederrari. Garbi dago Soraluzeko Pilota Elkarteak kideak asmatzen dihardutela gauza askotan. Horren erakusgarri dira azken urteotan eta berriki Debarroko txapelketan eskuratu dituzten txapel beltzak, baina ez ote du txapel horiek beste edo gehiago balio elkartearen bueltan osatu duten pilotari helduen eta gaztetzoen taldeak? Hori txapela kentzekoa da!





Baserritarrak kezkatuta

URAREN KANONAK KEZKA HANDIA SORTU DU BASERRITARREN ARTEAN

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **EGOITZ**

UNAMUNO

Maiatzaren 30ean, Udalak deituta, baserritarren bilera egin zen udaletxeko batzar aretoan. Gai-zerrendan, hainbat gai, besteak beste: bide konpontzeak eta mantenimendua, zuntz bidezko Interneta eta uraren kanona. Azken gai honek kezka sortu du baserrietako bizilagun askoren artean eta horren erakusgarri, aretoa goraino bete zen.

Untzetarako bidea

Udalak jakinarazi zuenez, aurten baserrietako bideak konpontzeko ataleko aurrekontua Untzetarako bidea konpontzera bideratuko da, eta baita datorren urtekoa ere. Auzoko bost baserri lotzen dituen bidea luzea da, aldapatsua eta gune askotan egoera kaskarrean dago, eta hori dela eta, lanek, aurten, 104.310 euroko aurrekontua izango dute, orain arteko garestiena. Dena den, proiektuan, Soraluzeko Udalaz gain Bergarako Udalak ere egingo du ekarpena, Untzetako hiru baserriak Bergarako udalerriko lurretan daudelako. Bi Udalek Gipuzkoako Aldundian ere egina dute laguntza eskaera. Lanak udazkenean abiatuko dira.

Internetarako konexioa

Baserrietara zuntz bidezko Interneta eroateko lanen

ingurukoa izan zen bileran landu zuten beste gai nagusietako bat. Udal ordezkariak berri eman zuten, dagoeneko hasita daude herriko baserrietara zuntz bidezko Interneta eroateko lanak. Lanok Telefonikak azpikontrataturako enpresa batek kudeatzen ditu eta alkateak enpresarekiko komunikazioa "nahikoa nahasia" zela aitortu bazuen ere, enpresak udalari jakinarazitako azken datuen arabera, dagoeneko, San Andres auzoko hamabi baserrietara eroan dute kablea eta urte amaiera baino lehen, "herriko baserri guztietara" ailegatzea aurreikusten dute. Behin kablea baserrira ailegatuta, bizilagunen ardura izango da kontratatu nahi duen telekomunikazio konpainiari eskatzea, honek etxeko instalazioa egin eta konexioa aktibatu dezan.

Uraren kanona kezka iturri

Ura Agentzia baserrietako urari ezartzen hasi zaion kanona izan zen bilerako gai nagusia, baserrietako bizilagunen artean

**"ERAKUNDEEK URA
KOB RATU NAHI DIGUTE
BASERRITARROI
INOLAKO ZERBITZURIK
ESKAINI GABE"**

"kezka handia" sortu duelako. Alkateak azaldu zuenez, gaia ez da udalaren eskumenekoa, baina azken asteetan hainbat baserrietako bizilagunek helarazi dioten "ezinegona" dela eta, gaiari "jarraipena" egitea erabaki du. Hala, bileran, hainbat bizilagunek euren egoeraren berri eman zuten: zenbaitek azaldu zuten Uraren idatzia jaso dutela kontagailua jartzeko eskatuz, beste zenbaitek, berriz, faktura jaso dutela dagoeneko kontagailua ezarrita dutelako... Egoera horren aurrean, gehienek "informazio falta" salatu zuten eta "kezka" adieraztearekin batera, euren desadostasuna agertu zuten "erakunde publikoek baserrietako bizilagunoi ura kobratu nahi digute baina inolako zerbitzurik eskaini gabe". Alkateak bizilagunekin batera gaia lantzen jarraitzeko konpromisoa hartu zuen.

Baserrietako ur kontsumoari zergapetzeko prozedurak Espainiako Gobernuak 2015ean onartutako 'Uraren legea'n du jatorria eta harrezkero egin zaizkion egokitzapenetan. 2021ean, Jaurilaritzak lege hori EAEn inplementatzeko araudia onartu zuen eta horixe da orain, Ura Agentzia ezartzen hasi dena. Lege eta arau berri horien arabera, erakunde publikoek ur kontinental guztien erabilera zergapetzeko eskubide eta betebeharra dute.



Baserritarrak eta Udaleko eta Debemeneko ordezkariak maiatzeko bileran. EGOITZ UNAMUNO



Untzeta aldeko mendi magala. E.U.



Untzetarako bide zati bat hondatuta. UDALA



euskaraz BARRA // e // BARRA

// Ikur honek euskara erabiltzeko aukera bermatzen dizu



**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Gipuzkoa mugitu,
Gipuzkoa sentituz.

**Batzen gaituenak,
mugitzen gaitu.**



Ezagutu Kutxa Fundazio berria.
www.kutxafundazioa.eus/garaiberribat



GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LALAK
MAINTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAKINEN IKUSEARBITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

Sarriegui patatak eta Soraluze

SORALUZEKOA DEN LARRAÑAGA FAMILIA DA PATATA ENTZUTETSU HORIEN JABE

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: ANDRES LARRAÑAGA ETA U.M.

Estatuko patata onenen rankingetan, Sarriegui patatak lehen hamarren artean azaltzen dira. Halaxe jasota dute, El País, Expansión eta El Español komunikabideek zein Traveler, Verema eta Gastropain webguneek, batzuk aipatzearren.

Noski, Soraluzen ere aski ezagunak dira Sarriegui patatak. Herriko taberna ia guztietan, patatak eskatuta, horiexek ematen dituzte.

Akaso horren ezaguna ez dena da Sarriegui patatak Soraluzekoa den Larrañaga familiarenak direla. Gaur egun, Andres Larrañaga *Olaran* (Soraluze, 1951) eta Milagros Larrañaga senar-emazteak eta haien seme-alaba Markel eta Marina Larrañaga dira pataten horien jabe; eta sortu, *Olaran* soraluzetarrak eta haren lagun Javier Gaztelua gasteiztarrak sortu zituzten, 1990. urtean.

Lehenengo, Kuskulo

Olaran eta Gaztelua egonezinak ziren, beti ideia berriak buruan bueltaka. 80ko hamarkadan ideietako bat gauzatzea lortu zuten. Orduko hartan, aparejadoreak ziren, obretan. Baina Gasteizko goxo-denda baten -Gretel- arrakastak erakarrita, denari laga eta halako bat zabaltzea bururatu zitzairen. Gasteizen nahi zuten. Hango konpetentzia, ordea,



Marina, Andres eta Markel Larrañaga.

handiegia zen. Gretel dendaren jabe Baskoniako Laso eta Kerejeta ziren, "eta gu txikiak ginen haien ondoan", dio Andres Larrañagak. Hala, goxo-denda Donostian zabaltzea erabaki zuten, *Olaranen* neska-lagun Mila han bizi zela-eta. Halaxe jaio zen Kuskulo goxo-denda, 1983an, Alde Zaharrea. Donostiar askoren denda-kuttunetako bat izan da urte luzez. Hori ere jasota dago komunikabideetan.

Hondarribikoak inspiratuta

Kuskuloren abenturaren ildo beretik, handik zazpi urtera, bi

PATATAS SAN JERONIMO IZENAREKIN HASI ZIREN PATATA FRIJITUAK SALTZEN, DONOSTIAN

lagunek patata frijituen negozio batean jarri zuten begia.

Hondarribian zegoen.

"Demaseko ilarak izaten zituen.

Oso patata frijitu finak egiten zituen. Guk ez genekien ezer patata frijituei buruz, baina bagenekien ederki saltzen zirela eta saltoki hark demaseko ilarak zituela. Pentsatu genuen, *ba hau Alde Zaharrea ere negozioa izan liteke kalitate bereko patatak egiten baditugu.*

Laster topatu genuen lokal aproposa Alde Zaharrea, 21 m2koa eta ordaintzeko modukoa, San Jeronimo kalean", kontatu du soraluzetarrak. Hantxe hasi ziren bi lagunak patata frijituak saltzen, Patatas San Jerónimo izenarekin. Gerora, Jesus Mari Gallastegi *Fotero* soraluzetarra ere gehitu zitzairen, "lan handia" eginez, "ezinbestekoa izan zen, benetan", dio *Olaranek*.

Saltokitik poltsara

Hasieran, patatak saltokian bakarrik saltzen zituzten, baina laster inguruko tabernetan eta dendetan ere bai, eta azkenik, poltsetan. "Azkenean, 50 bat establezimenduri eramaten genizkien, tabernak eta dendak. Udan ezin genuen, gure saltokian saltzearekin lan ugari baikeneukan. Baina neguan bai. Patatas Celiueta haserretu zen arte. Guk ez geneukan osasun agiririk tabernetara-eta eramateko, salatu egin gintuzten eta Jaurlaritzatik



Andres Larrañaga Olaran Plaza Zaharrean, Sarriegui pataten poltsa bat eskuetan duela.



Markel, Andres eta Marina Larrañaga Athleticeko eta Realeko patatak atzean dituztela.

isuna jarri. Baina gobernuko ordezkaria ondo portatu zen, aurrera egiteko aholkuak eman zizkigun, bidean lagundu eta animatu, eurek ere nahi zuten pataten produkzio fabrika bat egotea EAEn. Horrela, patatak produzitu eta poltsetan sartzeko fabrika erosi genuen, Usurbilen", kontatu du Olaranek.

Ordurako, Patatas San Jeronimo izatetik Patatas Sarriegui izatera pasa zen produktua. Marka eta izena erregistratu beharrak hasierako izena aldatzera eraman zituen

bi lagunak. "Casa de Munt kataluniarrek San Jeronimo izena erregistratuta zuten dagoeneko. Orduan, erabaki genuen beste marka bat ipintzea. Marken enpresa batera joan ginen, 13 santuren izenak probatu genituen, Donostiakoak eta ingurukoak. Baina denak zeuden erregistratuta. Orduan komentatu genuen, *ba donostiarra den abizen bat pentsatu beharko dugu, patatak hemen saldu nahi ditugu-eta*. Eta Javik esan zuen *Sarriegui*, eta halaxe dira orain".

HONDARRIBIRAINO IRISTEA PENTSATZEN GENUEN ETA HONG KONG-ERAINO ERE IRITSI GARA

"Amets egin dezakezu"

Usurbilen hasi zirenean 350 m²ko fabrika zuten eta orain, berriz, 2.500 m²koa dute. *Olaranek* kariño handiarekin ditu gogoan hasiera haiek: "Oso modu errudimentarioan hasi ginen, eskuz pisatzen eta eskuz enbasatzen. Kaxak Cartonajes Eibarri erosi genizkion. Horrela hasi ginen, ezerezetik. Baina poliki-poliki gehiago eskatzen ziguten. Guk pentsatzen genuen asko jota Zarautzeraino eta Hondarribiraino iristea eta pentsa, Hong-Kongeraino ere iritsi gara (...) Ordu mordoazartzen genituen, hasieran ez zegoen astebururik batera. Baina norberarendako lan egiteak badu bere hori. Amets egin ahal duzu, zurea delako, nahiz eta amets guztiak ez bete, baina amets egin dezakezu, eta dibertitu egiten zara eta bete egiten zara", adierazi du soraluzetarrak.



Gaur egun, munduko 25 herrialdetara esportatzen dituzte Sarriegui patatak, batzuke aipatzearren, Hong-Kong, Saudi Arabia, Kuwait, Taiwan, Herbehereak, Frantzia, Finlandia, Suedia, Ingalaterra, Belgika eta baita Kanada eta Guatemala ere eta etengabe segitzen dute leku berriak probatzen. Gainera, oraingo produkzioa -urtean 900.000 kilo patata gordin, 250.000 kilo frijitututa- bikoizteko asmoa dute Larrañagatarrek.

Musikaren alde

TESTUA ANDER GOMEZ

ARGAZKIAK: INA PEÑALBA

Sour jaialdiak askotariko musika taldeak ekarri zituen Soralezera ekainaren 15ean, zenbait herrikoak bertakoak. Espero zutena baino ikusle gutxiago izan zen arren, bertaratu zirenek ederto pasatu zuten eguna puntako soinu-ekipo eta argi-joko profesionalaz lagundutako musika emanaldiekin. Añubeko Troba taldeko kide den Mikel Hernaldezek, esaterako, "ibilbideko emanaldirik onena" eskaini zutela aipatu du. Azken batean, antolatzaileek musikaren alde egindako apustua izan da Sour jaialdia eta zalantzarik gabe, kontuan hartu beharreko irakasgai asko laga ditu etorkizunerako.





GUTUNAK

LGTBI+ Harrotasunaren Eguna, 2024ko ekainaren 28a

SORALUZeko UDALA

Ekainaren 28an, LGTBI+ kolektiboaren, sexu askapenaren eta harrotasunaren egunean, LGTBI+ mugimenduar harro gaudela aldarrikatu nahi dugu eta gure konpromisoa berresten dugu aniztasunarekin, LGTBI+ eskubideekin eta bizikidetzarekin. LGTBI+ kolektiboaren eskubide eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatu nahi ditugu, baina ahaztu gabe oraindik eskubide horiek lortzeko bidean pausu handiak gelditzen direla.

Horregatik guztiagatik, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika

publiko integral eta sendoak, genero-aniztasunaren perspektiban eta perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara eta hori sustatzen jarraituko dugu, askoren artean eta elkarlanean.

Hori dela eta, udalean konpromisoa hartzen dugu, gure herriko LGTBI+ pertsonetan oinarritutako ekintzak abiatzeko, gure herria LGTBI+ fobiarik gabea izan dadin. Ildo honetan, herriko LGTBI+ mugimenduko kideekin batera aritzeko konpromisoa hartzen dugu eta erreferente eta

norbanako ezberdinak aktibatuzko moduak sustatuz. Honetaz gain, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren mobilizazioetan parte hartzera.

Amaitzeko, LGTBI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, batez ere, Soraluzean LGTBI+ komunitatearen eskubideen alde borrokatu egin duten pertsonak, harrotzeko moduko mugimendua osatzen duzuelako.

Gora Ekainaren 28a!

SoraluzetHarrok, aske maitte, harro bizi !

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Zein da zure jolasik gustukoena?

Jolas tradizionalen artetik, zein da gehien gustatzen zitzaizuna?



**NEREA CASTILLO ETA
SARA ALDAZABAL**

"Gu Parketarretan ibili gara eta hango jolasetatik, zapi-zapika gustatu zitzaigun gehien, lagunekin jolasten delako eta desberdina zelako. Eta aburritxiko ere gustatu zitzaigun. Horiez aparte, harrapaketan ere jolasten dugu".



BEÑAT ALBERDI

"Gustukoena eta oroitzapen oso onak ditut Bote-boterekin. Eskolako patioan eta gimnasian jolasten genuen, lagunekin. Jolas sinplea, baina oso polita. Orain gazte guztiak telefonoarekin dabilta. Jolasak ez dira korrika egiten, baizik eta eskuekin, eta, pena bat da".



RUBEN HERNANDEZ

"Bote-bote. Harrapaketa bezala da, baina botila batekin. Frontoian ere ibiltzen ginen barruka, pressing-catch egiten genuen... Orain, berriz, talde asko ikusten dira mobilekin, bakoitza bere munduan eta pena bat da".



**PEDRO ELIZBURU
'POLVORILLA'**

"Ni beti kiroletan ibiltzen nintzen, paletan. Kanpora joaten ginen txapelketetara. Antxintxiketan ere asko, Memorial Atxan 10 urtean. Futbitoan... Gaur egun, larriena da gehiegi ibiltzen direla pantailekin. Mutiko guztiak. Bakoitza leku batean jarri-eta..."

PUNTUA



ENARA AGIRRE

Libre, ez ausart

G aueko 04:30ean Estazinoko geltokian geratu eta bazoaz etxerantz; bakarrik, kalea ilun eta inor ere ez inguruan. Elizburuko eskaileretan behera ere inor ere ez eta eskailerak jaisten dituzu, baina tarteka begi albotik eliz atarira begira, urduri jartzen zaitu inguru horrek. Santa Anara sartuta pausuak nabaritzen dituzu zure atzetik, oraindik distantziara badira ere urduritu zara. Atzetik datorrenak zure norabide berbera jarraitzen du eta zuk pausua bizkortu duzu, ez zara ausartzen korrika hasten, baina beldurra barruraino sartu zaizu bat-batean. Ez dakizu nor den, nolakoa den... baina beldurraren beldurrez ez zara atzera begiratzen ere ausartzen.

Aurrera jarraitzen duzu Santa Anako zubirantz, pasatu eta martxa bizkortu duzu oraindik ere.

Errekalderantz joanez lasaitzen hasi zara pausuak desagertzen hasi direla nabaritzean; zure atzetik zetorrenak norabidea aldatu du eta. Bihotza bularretik irten beharrean zaude eta, oraingoan bai, etxera antxintxiketan joan zara, beldurra ez die malkoei ere tokirik uzten.

Gutako zenbat egon gara egoera honetan? Zenbat aldiz itzuli gara etxera beldurrez? Etxera bidean libreak izan behar gara, ez ausartak."



"Harro gaude askatasuna aldarrikatzen dugulako"





IONE OREGI ETA JULEN MUGURUZA
LGTBI KOMUNITATEKO KIDEAK

Pil-pileanek Gaztelupeko tabernan elkartu ditu Ione Oregi eta Julen Muguruza beren orientazio sexualaren inguruan izan duten bizi-esperientziaz berba egiteko. Ahobizarrik gabe jardun dute kolektiboaz, gizarteaz, homofobiaz, askatasunaz eta bizitzan izan dituzten bizipenez.

Testua: **Egoitz Unamuno.**
Argazkiak: **Juan Fernandez.**

Nola bizi duzue LGBTI harrotasun eguna? Julen Muguruza: Normal, beste egun bat bezala. Baten batek zorionduko nau, kontzentrazioa joango naiz...

Ione Oregi: Nik egia esateko, azkenengo urteetan, guraso lanengatik, ez daukat ezta presente ere... Akordatzen naiz iaz kontzentrazioaren ordua gaizki zetorkidala umeengatik baina pentsatu nuela, esfortzu bat egin behar dut egoteko, inportantea delako. Sentitzen dut ardura bat daukagula, inportantea dela egun hori mantentzea eta bisibilitatea ematea. Orain erreportsabilitate gehiago sentitzen dut, umeengatik ere bai. Egun horrek aukera ematen dizu, gaiaz berba egiteko.

J.M.: Bai, beharrezkoa da datozenei bidea zabaltzea. Batzuetan badirudi dena dagoela lortuta, baina gero kalean zoaz eta zazpi urteko ume batek esaten dizu, 'maricon!', eta pentsatzen duzu: joe, nola dagoen kontua.

Pertsonalki nola bizi duzue LGBTI kolektiboko kide izatea?

I.O.: Ni kolektiboko parte sentitzen naiz, nahiz eta pixka bat modu abstraktuan izan. Sentitzen dut babesa ematen didala. Eskertzen dut kolektiboa antolatuta egotea, nahiz eta ni momentu honetan ez naizen oso aktibo.

J. M.: Ni ere kolektibokoa sentitzen naiz. Ni 6. mailan konturatu nintzen gay nintzela eta garai hartan kolektiboa LGTB zen. Gerora etorri dira Q eta gainerakoak, pertsona horiek ez direlako sentitzen errepresentatuak beste inon. Hemen herrian ikusten ditut beste pertsona gay edo lesbiana batzuk eta neurekiko pentsatzen dut: "hau zoragarria da". Gure artean elkar lagundu beharra daukagu.

I.O.: Kolektiboa hain da dibertsoa. Batak ez du zerikusirik bestearekin. Azkenean kontua libre izatea da, errespetua... Kolektiboaren helburuak horietatik izan behar dute, kitto. Ni harro sentitzen naiz kolektiboko parte izateaz baina ez banintz ere, harro sentituko nintzateke, askatasuna aldarrikatzen delako eta askatasuna denon erresponsabilitatea da. Dena delako orientazio sexuala izanda ere, denok nahi dugu leku libre batean bizitzea, ala?

Noiz konturatu zineten zuen sexu orientazioa 'norma'tik kanpokoa zela?

J.M.: Nik txikitatik sentitzen nuen zerbait arraroa, ez zena "normala". Ikusten nuen amaren makillajea eta neurekiko nioen, "gustatzen zait!"



eta gonak ikusi eta berdin. Mutil bat hurbildu eta, "kontuz!". Seigarren mailan izan zen, esperimentatzen hasten den garai horretan, pikoak eta abar. Ni konturatu nintzen, neskak niri, ba, ezetz. Hor sentitu nuen beharra "armairutik" ateratzeko. Eta urte hartako karnabaletan, pum! Esan nion mundu guztiari. Oso garbi neukan. Egia esan, armairuaren kontzeptua ez zait batere gustatzen... Zu ere atera zinen Ione?

I.O.: Ez, zehazki atera ez [Barreak]. Nirea pixka bat zailxeagoa da... Nik ez dut sentitzen nire orientazio sexuala super definituta. Ez lehen eta ez orain. Neskak bakarrik edo mutilak bakarrik edo... Nik jokatu izan dut momentuan sentitzen nuenaren arabera.

Gogoratzen dut lehen aldiz neska batekin egon nintzenean, oso gaztea nintzen. Hor bai, akordatzen naiz, esplikazioak emateko obligazioa sentitu nuela. Mutil batekin izan balitz ez nuen sentituko, noski. Nik nire barruan ez nuen sentitzen problematarik baina bai sentitzen nuen gainerakoei esplikazio bat eman behar niela, bestela igual ez zutelako ulertuko. Nik esan nien gauza bakarra izan zen niri pertsona hau



"KALEAN ZOAZ ETA ZAZPI URTEKO UME BATEK ESATEN DIZU, 'MARICON!'. JOE!"

"KONTURATU NINTZEN, NESKAK NIRI, BA, EZETZ. SENTITU NUEN BEHARRA 'ARMAIRUTIK' ATERATZEKO".

"SENTITZEN DUT ARDURA, INPORTANTEA DELA EGUN HORI MANTENTZEA ETA BISIBILIZATZEA".

gustatzen zait eta hortik bakoitzak ateratzen ditu bere ondorioak. Niri inoiz ez dit inporta izan horrek eta jarraitu dut nire bizitza egiten normal normal. Egia da neskekin egon naizela, baina ez dut izan nezesidaderik esateko, ni hau naiz edo beste hura.

J.M.: Armairuarena aldatu beharra dago. Atera, zergatik? Nondik? Atera zaituzte zu?

Ingurukoek nola erreazionatu zuten?

I.O.: Ba, ondo. Gogoratzen dut aitak esan zidala "Ione, zerbait behar baduzu, esan". Beti eskertu nion hori esan izana. Beste pertsona batzuk esan zidaten ez zela ezer gertatzen. Bale, hori ere ondo dago baina momentu horretan zuk egiten duzu esfortzu bat kontatzeko eta eskertzen da babesa eta garrantzia ematea. "Onartzen zaituzte" esateaz gain, esatea, "zeozer behar duzue?". Ezagutzen dut jendea gurasoek esan diotena "bueno, oraindik oso gaztea zara". Joe... Berdin da zein adin daukazu. Oso gauza intimo bat ari zara espresatzen...

J.M.: Nik familiarengandik babesa jaso dut, baina aitaren partetik guztiz kontrakoa. "Bueno, bueno, bueno...", hori izan zen bere erantzuna kontatu nuenean. Lagunengandik babesa jaso nuen eta jai modukoa izan zen. Babes hori demostratu didate eta demostratzen jarraitzen didate. Batzuetan, baten batek zerbait [iraingarria] esaten dizue eta erantzun egiten diozue baina beste batzuetan txikitu egiten zara eta babes hori sentitzea, laguntza daukazula...

I.O.: Ah, kontxo! Nik ez dut kontatu amamarena. Inoiz ez zidan esan ezer, baina bueno... Berak bazeukan zerbait barruan. Hori igarri egiten da eta horrek min ematen du, ikusten duzulako ez duela guztiz onartzen.

J.M.: Bai, beste jenerazio bat da. Nire aititik onartu zuen, baina beti lagatzen zuen ate bat zabalik [barreak]: "Nobixua bai, baina nobixia?". "Ba ez aititita, uste dot ezetz". Nik adinekoei barkatzen diet, jenerazio gazteagoei, ez.

I.O.: Bai, bale, errespetatzen nauzu, baina nik onarpena nahi dut. Bi gauzak. Hori da eskatzen dioguna gizarteari.

J. M.: Bai eta nik askotan pentsatzen dut ez gaudela gizarte normal batean, ez emakumeekiko, ez etorkinekiko... Pasada bat da. Eta gero pizten duzu telebista eta Covid-az berbetan. Covida? Badaude beste mila gauza atzera lagatzen ditugunak.

Sentitu zarete inoiz deseroso zuen orientazio sexualagatik?



I.O.: Niri deserosoena egiten zaidana da beti zuzentzen ibili beharra... Ezagutu berri nauen jendeak egintzat jotzen du nik, emakumea izanda, gizon bat daukadala. Hori egiten zait astuna.

J.M.: Ni txikitatik... Luma neukan eta daukat eta txikitatik entzun behar izan dut “maricon” eta betaurrekoak ipini nituenean, “maricon y cuatro ojos”... Edo Eibarren parrandan atera eta etortzea mutil bat esanaz “maricon”. Nik horri aurre egiten diot baina pena ematen didana da etortzea zazpi urteko ume bat kalean eta esatea “gay”. Ez dit esan aurretik ez dakidan ezer baina ze pena, ze pena... Eta hori dena dator familiarik.

I.O.: Bai, ziurtatzen dizut umeek ez dutela inongo arazorik. Arreta ematen die eta galdetu egiten dute interesetik, besterik ez. “Ama, zergatik doa makillatuta?”, “Gustatu egiten zaiolako”. Eta listo!

J.M.: Umeei oraindik ere galdetzen diete ea nobiorik duten neskei eta ea nobiarik duten mutilei. Mesedez, galdetu biak, ez zaizu ezer kostatzen!

I.O.: Asko dago aldatzeko. Oraindik ere asko mugatzen ditugu umeak, gizartearen “sufritu” ez

dezaten. Sufritu? Umeak etorkizunean bere ingurua aukeratu ahalko du, baina bere buruarekin bizitza guztian egon beharko du. Ziurtatu dezagun bere buruarekin ondo sentituko dela.

Ione, zuk bi amaz osatutako familia duzu. Sentitu duzu bereizkeriarik?

I.O.: Ez, oraingoz ez. Bueno, eskolara joan behar izan dugu bi edo hiru aldiz esatera paperetan mesedez aita-ama izenak aldatzeko. Mesedez, ipini itzazue familia mota gehiago abarkatzen dituen termino batzuk. Euskaraz oso erraza da: ‘Gurasoen izena’. Badakit ez dutela txarrera egiten baina... Ez dago inor horretan pentsatzen duenik? Nik orain sentitzen dut erreponsabilitate gehiago, jada ez naizelako ni bakarrik. Umeak euren pertsonalitatea eraikitzen dihardute eta dut nahi inork ezer esaterik bere familiarik. Etxean prestatuko ditugu edozeini erantzuteko, baina ez dut nahi hori esan bihar izaterik.

Gainontzean, ez dut sentitu ezer baina egia da orain arte egon garela inguru babestu batean. Ez dakit zer izango den babes eremu horretatik ateratakoan... Behin edo behin tokatu zaigu galdetzea ea bikotea eta ni ahizpak garen... Bestalde, gaur egun inguruan familia mota asko ikusten ditut eta uste dut horrek etorkizunean eragingo duela denak onartuago izatea.

Zu Julen, oso gaztea zara eta ausarta ere bai. Nola bizi duzu?

J.M.: Bai, ni makillatu egiten naiz, azazkalak egiten ditut, poltsak eroaten ditut, zilborra bistan eroaten dut... Niri bost! Umeak begira gelditzen zaizkit, baina geldi daitezela eta kopiatu eta errepikatu dezatela nahi badute. Nik hartzen nuen korrektorea eta sentitzen nintzen Paris Hilton [barreak]. Nik egiten dut ondo sentitzen naizelako eta gustatzen zaidalako eta nahi dut jendeak normalizat hartzea. Mutilak ere makillatu daitezke eta nahi duena...

I.O.: Eta zein inportantea den hori herri txiki batean. Hirietan beste gauza bat da, baina herri txikietan basikoa da ezberdintasun hori espresatu ahal izatea, ikustea.

J.M.: Nik lanean ez dut inoiz izan inongo arazorik. Nire jefea orain Mireia da, Boliakoa, eta lehenengo egunetik esan zidan “zu etorri nahi duzun moduan, zu barran zauden momentuan zu zara jefea”. Eta Ludotekan ere badakit ez daukadala arazorik nahi dudana moduan joateko. Zuk lanean izan duzu arazorik Ione?



"GOGORATZEN DUT AITAK ESAN ZIDALA: "IONE, ZERBAIT BEHAR BADUZU, ESAN""

"ESKOLARA JOAN BEHAR IZAN DUGU BI-HIRU BIDER ESATERA PAPERETAN AITA-AMA IZENAK ALDATZEKO"

"MAKILLATU EGITEN NAIZ, ZILBORRA BISTAN EROATEN DUT... ONDO SENTITZEN NAIZELAKO"

I.O.: Ez, baina nik ez dut estereotipo hori betetzen. Nik ez daukat zertan esan ezer eta inork ez dit ezer galdetzen. Ni neska naiz eta nire izaera femeninoa da baina klaro, hortik ateratzen den guztia... Oro har prest gaude lan elkarrizketa batean estandarretik kanpo daudenak onartzeko? Hum. Ez dakit. Uste dut horretan ere asko dagoela aurreratzeko.

Oro har gizartea zela ikusten duzue?

J.M.: Esan beharra dago Espainia Europa mailan irekiena dela eta joe, Espainian horrela bagaude, ez dut pentsatu ere egin nahi nola dauden beste leku batzuetan.

I.O.: Niri etortzen zaizkit gauza kontraesankorrek. Nik daukadan sententzia da gazteek gero eta askatasun gehiago daukatela baina, bestalde, ikusten dut alderdi eskuindarrekin sekulako gorakada dutela. Beldurra ematen dit eta batzuetan pentsatzen dut "igual etxe barruan gelditu beharko naiz". Orduan, zehazki, ez dakit non gauden. Ez dakit esaten. Demagun sexu bereko pertsonen ezkontzak debekatzen dituztela, gaur egun normaltzat jotzen dena. Orduan, zer gertatuko litzateke? Gizarteak onartu egingo luke hori? Ez dakit, igual bai.



Jende asko sumatzen duzue bere benetako orientazio sexuala agertzeko beldurrez?

I.O.: Nik uste dut jende asko egongo dela egoera horretan eta jende gaztea ere bai, hezkuntzak mugatzen dituelako. Zure semeak eskatzen dizu zerbait eta zuk txikitatik botatzen diozun mezua bada, “ez dago ondo!”, hori karga bat da, borondate onenarekin egin arren. Berak sentitzen badu eta argi baldin badauka gay dela, esateko momentu horrek limite bat dauka. Eta esango du oso gaizki dagoelako edo pertsonalitate handia duelako. Nik uste dut umeei muga horiek ezartzen zaizkiela oraindik, ikusten dut...

J.M.: Nik neskena diferente ikusten dut mutilen aldean. Ni bezalako mutil bat femeninoa-eta, ez da hain zaila ateratzea, baina mutil bat Soraluzen, modo futbolari, heterito eta abar, ateratzea, oso arraroa egingo litzaidake.

I.O.: Nik uste dut gizonezkoen kasuan problema gehiago ematen duela, identitate maskulinoa hausten duelako. Alde horretatik, uste dut neskok errazago daukagula.

J.M.: Orain modan jarri da ‘heterocurioso’-a. Heteroa naiz, baina probatzen dut. “Ez maitia, zu bisexuala zara edo ‘marikoia’ zuzenean”. Niri

behin amak esan zidan: “Eskerrak esan duzula. Bizi zaitetz! Hemen badago jendea andrea eta umeak dituen eta isilik daroana”. Bestalde, hor dago bere izaera erakusteko herritik kanpora joan behar izan duen jendea ere.

I.O.: Bai, libre izateko kanpora joan behar izan duena. Niri pena ematen dit. Egia da hiribururu batek ematen dizula anonimatua. Dena den, nik neuk eskertu dut herri txiki baten bizitzea, ezagutzen nautelako ni pertsona moduan eta oinarria neu naizelako. Herri txiki batek bi alde horiek ditu, alde bat ona, babestu ahal zaituelako, baina herri txiki batek hondoratu ere egin zaitzake.

Zein uste duzue dela etorkizunean ezberdintasunen onarpenean aurrera egiteko modua? Aipatu dituzue hizkuntzaren erabilera, umeen heziketa...

I.O.: Bai, horiek dira oinarriak eta nik eskatuko nioke jendeari zabaltzeko ikuspegia eta pertsona bat ezagutzen duenean ez dezala pentsatu aurrez pertsona hori nolakoa den.

J.M.: Armairutik irtetearena apurtu egin behar da. Ez dago beharrik sofan jarri eta azaldu behar izateko... Zelako apurua! Mesedez. Libre bizi eta kitto!

GIPUZKOA

Ekin.

-
*Gipuzkoa
oparoagoa
izateko.*

Zaindu.

-
*Pertsona guztiak eta
horien ingurukoak
zaintzen dituen.*

Bizi.

-
*Ondo eta
duin bizi
daitezen.*



GIPUZKOA

Foru Aldundia

Ezti zaporeko itxiera

FUTBOL TALDEEN DENBORALDIKO EMAITZAK ETA BALORAZIOA

TESTUA: ANDER GOMEZ

Amaitu da futbol denboraldia eta emaitza bikainak izan ditu Sorak. Lehen postuen artean bukatu dute jubenilen eta infantilen talde guztiek; eta nagusiak eta kadeteak sailkapenaren erdialdean geratu dira —emaitza ona ere, biak Gorengo mailara igo berri zirela kontuan hartuta—.

Bitxikeria bezala, talde guztiek garaipena lortu zuten jokotutako azken jardunaldian, ezti zaporearekin itxiz denboraldia.

Sari banaketa

Urtero Txurruka jabetxean egiten duten afarian ospatu zuten emaitza. Entrenatzaile, jokalaria eta delegatu artean, 55 lagun elkartu ziren eta denboraldiko MVPak (jokalaririk baliotsuenak) eta goleatzaileak saritu zituzten bertan.

Kadete mailan, Julen Calderon izan da jokalaririk baliotsuena eta goleatzailea, berriz, Unax Rodriguez. Jubenil mailan, jokalaria baliotsuena Eneko Felix izan da eta goleatzailea, berriz, Josu Leturiondo. Azkenik, Gorengo mailan, jokalaria baliotsuenaren zein goleatzailearen sariak Mikel Oregi Leturiondo *Letu* kapitainari eman zizkioten.

Kapitainaren agurra

Maiatzaren 18ko partida izan zen *Leturen* azkena, eta

kuadrilla eta familia osoaren babesa izan zuen harmailetan. Lagunek pankarta egin zioten, urteotan taldearen alde egindako lana eskertzeko eta "klub bakarreko jokalaria" izatearren, ingelerazko *one club man* adierarekin.

Entrenatzaile berria

Iaz taldera batu zen Mikel Cid entrenatzaileak ere taldea utziko du, klubaren bisioa eta bere anbizio pertsonala bateraezinak direla argudiatuz: Berak "irabaztea eta kategoriaz igotzea" du helburu, —plantilla handitzea eta kanpoko jende asko ekartzea suposatuko zukeena— eta Soraren lehentasuna "herriko jokalarien aldeko apustua egitea eta lagunarteko giroa mantentzea"

dela ikusi du. Balore horiekin "gutziz ados" dagoela azpimarratuta, "hoberena bakoitzak bere bidea egitea" izango delakoan hartu du erabakia.

2024-2025 denboraldian, Bergarako nagusien bigarren taldea entrenatzetik ailegatuko da Ibon Leibar "Txinbo" bigararra.

Batzarra eguaztenean

Soraluze FTk diru eta kirol kontu hauek guztiak jorrazteko Batzar Orokorra antolatu du, eta bazkideen eta jokalarien kezka eta galderetarako tartea ere egongo da.

Uztailaren 3an egingo da, Tolarekuan, bi txandatan: lehenengoa 18:00etan, bigarrena 18:30ean.

Denboraldiko sailkapena

| Pos. | Taldea | Ira. | Ber. | Gal. |
|------|--|------|------|------|
| 9 | Gorengo maila | 11 | 6 | 13 |
| 3 | Jubenilen 1. maila (5. multzoa) | 10 | 2 | 4 |
| 3 | Jubenilen 1. maila (9. multzoa) | 5 | 1 | 4 |
| 11 | Kadete Gorengoa | 10 | 6 | 14 |
| 2 | Infantil 1. maila, Txape Fasea, Eskolartekoa | 13 | 0 | 5 |
| 2 | Infantil 1. maila, Udaberri Kopa | 11 | 4 | 3 |
| 1 | Infantil 1. maila, Eskolartekoa (7. multzoa) | 7 | 1 | 0 |
| 6 | Infantil 1. maila, Eskolartekoa (9. multzoa) | 2 | 2 | 4 |



Denboraldi bukaerako afaria, Txurruka jatetxean. GORKA ZUBIAURRE



Mikel Cid entrenatzailea jokalaria zoriontzen. ANDER GOMEZ



Felix eta Leturiondo saria jasotzen entrenatzaileen eskutik. G. Z.



Ibon Leibar Belastegi "Txinbo", entrenatzaile berria. AIURRI



Letu bere agurreko partidan, lagunez inguratuta. UBANE MADERA

'Laia' ikuskizuna plazara

ALURR DANTZA TALDE ENTZUTETSUA SORALUZEN IZANGO DA UZTAILAREN 5EAN

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU
ARGAZKIAK: ALURR DANTZA TALDEA

Uztailaren 5ean, barikuan, 22:00etan, Ibarako Alurr Dantza Taldeak *Laia* ikuskizuna taularatuko du Plaza Zaharrean. 20 dantzari inguruk parte hartuko dute Euskal Herriko ofizio tradizionale inguruan sortutako dantza emanaldian. Emanaldiak 50 minutuko iraungo du eta lau bloke izango ditu. Nagore Zabala zuzendari eta koreografoak esplikatu duenez, "bloke bakoitzean irudikatu nahi da nola zen garai bateko nekazarien lana, arrantzaleena, arotzena, burdinoletakoa... dantza bidez eta ofizio bakoitzari dagozkion lanabesez zein jantziez".

Emanaldi asko

Alurr Dantza Taldeak iaz estreinatu zuen *Laia* eta "oso harrera ona" izaten ari dela kontatu du zuzendariak. "Gustatu da eta emanaldi asko ari zaizkigu ateratzen. Udaran, adibidez, zazpi bat ditugu, Lasarten, Sopuertan, Aian, Donostiako Aste Nagusian...".

Laia ikuskizunak duen ezaugarri deigarriena bat da dantzarien gaztetasuna, 16-24 urte bitartekoak dira, eta hori, asko baloratzen dute Ibarako dantza taldean. "Gehienbat gazteek egin duten lana indartze aldera dihardugu. Iaz sekulako lana egin zuten emanaldirako eta ez da erraza gazteekin horrenbesteko lana



'Laia' ikuskizunaren estreinaldia.

egitea. Formatu txiki batean hasi ziren, herriz herri ibiltzeko; konturatzerako ur handitan sartu ziren, baina erabaki zuten aurrera egitea. Eurak oso motibatuta daude eta horixe izan da jarraitzeko gakoa. Gazteak dira eta eutsi egin behar zaio horri", dio zuzendariak.

Tradizioa eta modernitatea

Euskal Herriko zein nazioarteko plazetan eskarmentu luzea duen taldea da Alurr. 1995ean hasi zuen ibilbidea eta ia 30

**"LAU BLOKE DITU:
ARRANTZALEENA,
NEKAZARIENA,
AROTZENA ETA
BURDINOLENA"**

urtez, euskal pausu eta dantza tradizioaletan oinarritutako koreografia berriak sortu dituzte, "pausu tradizionalak musika modernoekin" egindako koreografiak, hain zuzen. 14 ikuskizun landu dituzte horrela.

Kultura kalean

Soraluzera, berriz, Udaleko Kultura Batzordearen eskutik dator *Laia*. Maite Quintanilla Kultura zinegotziak esplikatu duenez, kultur ekitaldien inguruko hausnarketan ateratako ondorioetako batzuk izan ziren genero ikuspegia gehiago kontuan hartzea, kultura kalean gehiago programatzea, dantza ikuskizunak besteak beste, eta urtean, kultur programazioan ikusitako hutsuneak -uztailean jaien aurretik eta iraila inguruan, batik bat- indartzea.



Arraindunak 'Laia' ikuskizunean.



Nekazal lanak 'Laia' ikuskizunaren parte dira.

UMEENTZAKO TAILERRAK

2024-2025 URRITIK MAIATZERA

ZIRKOA

Gorputz adierazpena,
mugimendua eta sormena

Zirko-teknika ezberdinak

Adina: LH1-LH6

BERTSOLARITZA

Memoria, hizkuntza-gaitasuna
eta sormena

Bertsolarien bisita eta irteerak

Adina: LH5- DBH2

ARTE PLASTIKOAK

Psikomotrizitate fina eta
sormena

Pintura, marrazkia,
buztingintza, collage, etab.

Adina: LH1-LH6

Informazio
gehiago




SORLUZEKO
UDALA



ZORION AGURRAK



Paule Oñederra Ostolaza
Ekainaren 25ean 9 urte. Zorionak Pauletxo! Etxeko danen partez.



Lide Sodupe Ostolaza
Uztailaren 1ean 14 urte. Muxu handi bat etxekoan partez.



Laia Gallastegi Nogales
Ekainaren 23an urte bat. Zorionak politxori. Etxekoan partez, bereziki Oihanen partez.



Leire Nogales Agirre
Ekainaren 4an 31 urte. Zorionak guapisima. Etxekoan partez.



Iker Laskurain
Ekainaren 6an 11 urte. Muxu handi bat etxekoan partez.



Mireia eta Loli
Ekainaren 21ean eta 20an. Zorionak etxekoan partez.



Ibai Soriano Sebal
Ekainaren 27an 5 urte. Zorionak! 5 urte handi! Super ondo pasauko dou zure eguna ospatzen. Asko maixe zaixugu. Zure familia.



Zaloa García Rodríguez
Ekainaren 24an 16 urte. Zorionak politxori. Patxo handi bat. Julen eta Saran partez.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Natalia San Jose Alonso
Jose Maria Igartua San Jose
Maria Dolores Arriola Arana

Jaiotakoak

Ez da inor erregistratu.

ODR
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guzietako leihoen, persianak, atsek, barandilak salmenta eta korponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Bager Errixa Kalea 2 - 20090 SORRALUZE
e-mail: odrleihoak@gmail.com

Belarrak
lora eta belardenda

Elikagai ekologikoak
Etxerako zerbitzua
Santa Ana 22
943 75 30 11

Griado
Fruitategia Urdaitegia

- Eriraguz Whatsapppe
- Etxerako zerbitzua
- Iberikoak & delicatessen

Astehelentik ostirara:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak: 09:00-13:00

☎ 629 958 536

administradores

ROSA M^a PINTADO

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna
Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Garaje bat erosi asmo dut. Hipoteka mailegu bat eskatu dut eta jakin nahiko nuke ia eskritura ikusteko aukerarik dudan sinatu aurretik.

Erosleak eskubidea dauka notaritzara joan eta eskritura proiektua ikusteko, sinatu aurreko hiru egun baldinudetan (astegunak). Eskritura proiektuan banketxearekin adostutako finantza-baldintza guztiak agertu beharko dute eta baita finantza baldintzak ez direnak ere. Neurritz kanpoko klausularik balego, notarioak kentzeko eskatu beharko lioke banketxeari. Notario aurreko eskritura-ematea ez da eskritura sinatzera mugatzen. Erosleak eskritura hori irakurtzeko behar duen beste denbora eska diezaioke notarioari. Ondoren, notarioak ahoz goran irakurri beharko du eskritura hori eta hipoteka-maileguaren edukia azaldu beharko du. Sinatu aurretik, notarioak katastroko eta Jabetza Erregistroko liburuak begiratu beharko ditu, bermatzeko ez dagoela erosi nahi den horren gaineko karga edo mugarik.

AHOLKUA: Banketxeek idatzitako kontratuak luzeak eta zehaztasun handikoak izan ohi dira. Komeni da tentuz irakurtzea eta sinatu aurretik notarioari dauzkagun kezka guztien inguruan galdetzea, gero ezustekorik izan ez dezagun.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13 Soraluze
476 556 817 - 943 75 21 38

OKETA HARATZEA

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gortuko ganadua
- Etzeko tripaiki, txuletoma, salbitza eta mingaina

Etxeburueta 5
Telefonoa: 943 75 21 75

Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak
1910etik zahar!

Arraindegia, janaria, erropak, etxeko fresnak, etxera eramateko zerbitzua

Kalebarrea 4
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00

ARRANO
taberna

Etami eta gozatu etxeko piltxoak

Etxeburueta 6

ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz idelkia, punta-puntuko teknologikoki lan egiten dugu. Call Cam sistema berritzailea erabiltzen dugu.

Elizburua, 3. beheko
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
Rug.: 947 62 78 79
email: elizpe.hortz@gmail.com

Ondategia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

BOLIA
TABERNA

Pirxoak, ardiak, korbinak
Gazte-giroko festa

FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Txoko

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitariekak, ogitariekak, rasiak, pizza, gazaria...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 09

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentza - Gozariek

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

Mimar
REHABILITAZIOA

Rehabilitazioa
Esneria
Solortuz

Gabizoz 4. beheko
Tel.: 943 75 13 13 - 642 51 34 04

IZZGUIRRE
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

MGS
Segurua

Veronica Gallarraga
Gertuko eta segurua

Astelehenetik ostiralera:
10:00 - 14:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 33
☎ 645 744 055

Hortz klinika

Erreal 1
Tel.: 943 75 16 13

30 urte baino gehiagoko esperientzia

adonologia, protesiak, ortodontzia, odontopediatria, ingurmenak, estetika...
Zerbitzu radiologiko orokorra (3D):
ekianeria, orto eta tele.

Iratxe Alonso
Idelkua (odontologoa)
K.Z. 48.000.599

Katia Guzmán
Odontologoa
K.Z. 48.061.541

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbata: 08:30-15:30
Igandea: 08:30-14:30

Gozariak, oga, prentza, pastak, korbinak...
Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

Kontulan

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoak
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontulan.com

Bidelagun euskaltzaletasunean

SOMABE Supporting your projects

aras

ALBISUA S.L.

laibi ELECTRICIDAD

Eskaintza handiak erretiroagatik



Oharra: Datozen hilabeteetan altzari denda ohiko zerbitzuak eskaintzen jarraituko du, baita sukalderako eta etxerako altzari berriak ere.



HNOS. BENITO ANAIK
MUEBLES-ALTZARIAK

Tel.: 943 75 20 47

San Andresko Jaiak

Uztailak 12-15

Zapatuan

Patata tortila lehiaketa, pilota txapelketako finala, Bergarako zezenak, kantu afaria eta erromeria


Domekan

Meza, bertsolariak, pilota partiduak, herri kirolak, Bergarako zezenak eta bola premia

Egitarau osoa:



Antolatzailea:



Laguntzailea:

